

Artisautza Aurpegi anitzeko lanbidea

egoera», dio egoera legezta-
tzearen alde.

Ezberdin oso pentsatzen du Mikel Lizarragak. Bera Nafarroako Plazaola elkarte-ko kidea da. «Administrazio aldetik gero eta gehiago eskatzen digute. Azoketan gero eta gehiago eskatzen dute autonomia izatea eta hori ezinezkoa da gutako askorentzat bizi dugun egoera ikusita. Nik ezagutzen ditudan artean legez aritzen diren gehienek, hau da, autonomoak direnek, urteak eta urteak igaro dituzte ahal bezala lan egiten. Ez segurantz sozilik ez ezer. Autonomo izan gabe ez duzu lan egiten nahi duzulako, eskatzen den diru hori ordaindu ezin duzulako baizik. Justu-justu ateratzen dut jateko, eta hortaz aparte ezin ditut beste 40.000 pezeta (1.600 libera inguru). Ni ere legezta-
tzearen alde nago, baina bakoitzari ahal duguna eskatzen badigute», dio Mikelek.

Komertzializazioa

Artisauak egiten dituzten lanak komertzializatze-ko moduak kezkatzen ditu artisauen elkarte asko. Azoken alde ageri dira artisau asko, eta horien beharra nabarmendu nahi dute. Beste batzuek, ordea, egun egiten diren azokek ez dituztela beharrezko baldintzak betetzen diote, eta egungo artisau azoka askoren aurka ageri dira.

Artisauak argi dute kalitateko produktuak egiten dituztela, arazoa horiek saltzean omen dago. «Ez dut uste artisauaren mentalitatea enpresariena denik. Noski, denetik dago, baina orokorrean uste dut gehienok ez dugula. Saltzea kostatzen zaigu askori», dio Mikelek.

Artisauaren irudia gutxietua izan dela diote askok eta askok, eta horren arrazoieta-ko bat azoka aski izaten dituzten baldintzen ondorio dela dio Bernart Vidalek. «Kalean botata aurkitzen dugun horri ez diogu balorerik ematen», esan du haserre.

Hortik dator arrazoieta-ko bat Bernartek duen azoken kontrako jarrera azaltzerako orduan. «Lehen azokak jende nagusiarekin jarri ziren mar-txan. Roman Aduriz, Casto-ra... Jende nagusia zen. Hori bazen artisautza bultzatzea. Beharbada, egun duen izpiritu komertziala ez zuten ordu-ko artisautza azokek. Horren ostean sektore banatua zela konturatu zen jendea etorri-zen, eta etekina lortu zezake-tela ikusi zuten. Lehen ema-



MIKEL MARTINEZ

Artisau bat beira lantzen, Bilboko azoka batean

BERNART VIDAL

Arbaso artisautza elkarteko presidentea

«Artisautzak gaur egun izango lukeen konponbide egokiena drastikoa izango litzateke guztiz»

ten zitzaien tratua egun ez zaie ematen artisauari; dietak, janaria, eta tratu duin bat... Orain aldiz zer gertatu da? Mundu guztiak saltzea nahi duenez zera diote: ba ez dago dietarik, eta artisauak berdin-berdin aurkitzen ditu, eta aukera bat emanez gero jendea horretarako prest dago: saltzeko», dio.

Asun Esnalek, Gabiltza artisau elkarteko presidentea, berriz, behar-beharrez-koa ikusten du azokak anto-latu beharra, batez ere arti-

sautzatik bizi direnentzat. Azoken alde egiten dute lan Asun Esnal presidentea den Gabiltza elkartekoek. Orain gutxi Ordizia Artisaualdia 98 antolatu zuen Gipuzkoako elkarte horrek. «Komertzializazioarako bide garrantzitsua direla uste dut. Iritzi ezberdinak badira, eta beharrak ere halakoak dira, anitzak. Artisau batzuek azoketan egiten dute lan, beste batzuek enkarguz, beste batzuek den-da propioak dituzte eta abar», dio Asunek.

Tradizionala eta egungoa

Artisautza tradizionala eta ez tradizionala bereiztu ditu gero Asunek. Hori baita artisautzaren sektorean iritzi aniztasunaren beste ardatz-tako bat. Batik bat erosle eta ikusleari dagokionez. Egungo artisautzaren mugak zehaz-tean dago kakoa, eta oraindik lagun askok lan tradizionala soilik ikusten duela artisau-tza gisa diote. «Bi alde ditu txanpon horrek. Alde batetik

ASUN ESNAL

Gabiltza elkarteko presidentea

«Artisauen artean gaur egun iritzi ezberdinak dira eta beharrak ere halakoak dira ugariak eta anitzak»

artisautzatik bizi izateko zai-lagoa da artisau tradizional gisa aritzea. Horregatik beste

Erantzunen bila

SEKTOREAN diren arazo-ak aipatu ostean irtenbi-deak zeintzuk liratekeen galdetu diegu Bernart Vidali, Mikel Lizarragari eta Asun Esnali. Erantzun-ak ezberdinak izan dira.

Lizarragak, Plazaolako kideak hala adierazi du: «Oso era merkantilistan dago antolatuta Aholkularitza Kontseilua, esatera-ko. Enpresa txiki gisa ikusten gaituzte, eta kasu batzuetan hala bada ere, ez da beti gertatzen. Artisautza oso zabala da eta ikuspuntuak ere halako-ak dira», dio.

Asun Esnalek hau dio: «Administrazioen aldetik laguntza gehiago jaso beharko genituzke. Artisauok lan asko dugu egi-teko, baita beste hainbat erakundek ere. Legearen aurrean dugun estatusa konpondu behar da».

Bernart Vidalek berriz, zera esan du: «Egoera honek duen irtenbidea oso drastikoa izango litzate-ke. Mundu guztiari eskatu behar zaio adi egon dadila, gero guk azaldu ahal izateko arti-sautzatik bizi daitekeen edo-ez».

bide bat eman behar zaiola artisautza tradizionalari uste dut: azoka bereziak kobratuz, museoak... Baina, arti-sautzatik bizi garen askok eta artisautza tradizionala egiten ez dugunok sarri asko-tan desanbantaila dugu azo-
ketarako joateko orduan. Azken buruan ikuslegoaren arreta tradizionalak lortzen du», dio.

Bernartek, aldiz, badagoe-la artisautzatik bizitzerik dio. «Legeztatu dezagun guztia, eta ikusiko dugu nola dagoen artisautzatik bizitzeko auke-ra», gaineratu du.

Iritzi anitz sektore bakar-rako.

Ane Sarasketa
DONOSTIA